1. agiria. Memoria
2. agiria. Informazio eta antolamendu planoak
3. agiria. Ordenantza arautzaileak
4. agiria. Jarduketaren baldintzak eta etapa plana
5. agiria. Ikerketa ekonomikoa eta finantzakoa

Proiektu honen arauzko edukia goiko paragrafoan adierazitako agirien multzoak zehaztu arren, hirigintza jarduera arautzeko izaera dutenak antolamendu planoak eta 3. (Ordenantza arautzaileak) nahiz 4. (Jarduketaren baldintzak eta etapa plana) agiriak dira; horrenbestez, hirigintza jarduera agiri eta plano horietan ezarritakora egokitu beharko da nahitaez.

Gainerako agiriak batez ere informatiboak dira; beraz, euren edukia lehen aipatutako agiriei kontrajarrita egonez gero, azken horiek nagusituko dira.

Eskala desberdinetan egindako plano arautzaileen arteko hirigintza xedapenen batekiko desadostasunik ikusten bada, eskalarik handieneko planoetan ezarritakoa nagusituko da, baldin eta desadostasun hori eskalarik handieneko plano horien edukian jasotako akats materialaren eraginezkoa ez bada.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

SSU.02 BETIONDO SEKTOREKO PLAN PARTZIALA

Ordenantza Orokorrak

2. ORRIALDEA

5. artikulua. Zona-banaketa xehatua eta jabari araubidea lursail eraikigarrietarako

SSU.02. Betiondo sektoreko lursailen eta zonen banaketa xehatua eta jabari araubidea Memoriako 4.2 epigrafean eta Plan Partzialeko "Zona Banaketa Xehatua" deritzon 6. planoan ezarritakoaren arabera arautuko da, ondoren adierazitakoa kontuan hartuta:

- FAMILIA BAKARREKO ETXEBIZITZA ISOLATUETARAKO EGOITZA LURSAILAK.

Jabetza pribatua: OR-5, G-3 ordenantza.

- 1-26. eta 34. lursailak.

- FAMILIA BIKO ETXEBIZITZA ISOLATUETARAKO EGOITZA LURSAILAK.

Jabetza pribatua: OR-3, G-3 ordenantza.

- 27-33. lursailak.

- ILARAN ITSATSITAKO ETXEBIZITZETARAKO EGOITZA LURSAILAK.

Jabetza pribatua: OR-5, G-1 ordenantza.

- 35-40. lursailak.

- DENTSITATE TXIKIKO ERAIKUNTZA IREKIKO ETXEBIZITZETARAKO LURSAILAK.

Jabetza pribatua: OR-3, G-3 ordenantza.

- 41. eta 42. lursailak.

- KIROLEKO EKIPAMENDU KOMUNITARIORAKO LURSAILA.

Lagapeneko lursaila. Jabetza publikoa: OR-3, G-3 lursaila.

- 43. lursaila.

- HEZKUNTZAKO EKIPAMENDU KOMUNITARIORAKO LURSAILA.

Lagapeneko lursaila. Jabetza publikoa: OR-3, G-3 lursaila.

- 44. lursaila.

- BIDE SAREA ETA APARKALEKUAK.

Komunikazioen toki sisteman eta sistema orokorrean sartzeko moduko erabilera eta jabari publikodun eremuak.

- EREMU ASKEAK, ZONA BERDEAK ETA BIDEAK.

Erabilera eta jabari publikoa duten eremuak.

- ZERBITZU ZENTROETARAKO ETA AZPIEGITUREN ELEMENTUETARAKO ZONAK.

Titularitate publikoa duten eremuak.

Plan Partzialean planteaturiko egoitzako lursail-banaketa orientagarria izango da, baldin eta, berori aldatzekotan, ezer baino lehen justifikatzen bada aukeraturiko lursail-banaketa alternatiboarekin bete egiten direla Plan Partzialeko antolaketa-baldintza guztiak, eta lursail mugakideetako sestren arteko alde bertikalak ez direla handituta gelditzen.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

SSU.02 BETIONDO SEKTOREKO PLAN PARTZIALA

Ordenantza Orokorrak

3. ORRIALDEA

2. KAPITULUA. PLAN PARTZIALA GARATZEKO ETA BETEARAZTEKO ARAUBIDEA

6. artikulua. Urbanizazio proiektua

Lurzoruari buruzko Legean eta Planeamenduko Araudian ezarritakoaren arabera, Urbanizazio Proiektu bakarra idatzi eta tramitatuko da; horrek Sektoreko urbanizazio orokorreko obra guztiak zehaztuko ditu, Plan Partziala garatzeko behar diren obra guztiak. Lursail eraikigarri bakoitzaren barruko urbanizazio obrak eraikuntzarekiko modu osagarrian egin eta kasuan kasuko Eraikuntza Proiektuetan zehaztuko dira.

Urbanizazio Proiektua idaztean, kontuan hartuko dira eremu publikoak eta azpiegitura sareak diseinatzeko, kalkulatzeko eta betearazteko arauak nahiz irizpideak, Plan Partzial honetan jasota daudenak, baita Ermuko Udaleko zerbitzu teknikoek edo erakunde eskudunak ematen dituen jarraibideak ere.

Lurzoruari buruzko Legeak eta Planeamenduko Araudiak eskaturiko agirien eta zehaztapenen bitartez, Urbanizazio Proiektuak bide-sarea, azpiegiturak eta zerbitzuko sareak zehaztuko ditu, Plan Partzial honetan ezarritakoak; gainera, ezarritako eremu aske komunitarioen diseinua zehatz formulatuko du.

Urbanizazio Proiektuan, lerrokaduren eta sestren egokitzapen txikiak sar daitezke, Plan Partzial honetan jasotako bideen nahiz eremu askeen antolamenduari eta lursail eraikigarrien egiturari dagokionez.

7. artikulua. Urbanizazio obren betearaztea

Urbanizazio obrak betearazteko, Plan Partzial hau eta kasuan kasuko Urbanizazio Proiektua onetsi behar dira.

Plan Partzial honetan ezarritako antolaketa-eraren garapena eta betearaztea, jarduketa urbanistikoaren araubideari dagokionez, jarduketaren baldintzen eta etapa planaren 4. agirian ezarritakora egokituko da.

8. artikulua. Eraikitze ahalmena gauzatea

Sektoreko lursail eraikigarrietan eraikuntza obrak egiteko, beharrezkoa izango da Plan Partziala, Urbanizazio Proiektua eta Lurra Birsailkatze Proiektua behin betiko onetsita egotea.

Eraikitze ahalmen hori gauzatzeko, halaber, bete egin behar dira Plan Partzial honetako jarduketaren baldintzen eta etapa planaren 4. agirian ezarritako xedapenak.

Lursail eraikigarriak (horietariko bakoitza gutxienezko lursailtzat egituratuta) zatiezintzat hartuko dira ondore urbanistikoetarako, eta beraz, eraikuntza lizentzia emateko proiektu eta tramite bateratua beharko dute; titularrek, berriz, lursail bakoitzari esleituriko betebeharrak urbanistikoak betearazteko erantzukizuna izango dute.

9. artikulua. Lurzoruaren lagapenak eta aprobetxamendua

Honako hauek Ermuko Udalarri dohainik laga beharko zaizkio nahitaez: Planak jabari edo titularitate publikora (urbanizatu ondoren) bideraturiko lurak, kiroleko zuzkidura komunitarioko ekipamendurako nahiz hezkuntzako zuzkidura komunitarioko ekipamendurako bideraturiko lursailak eta merkataritzako edota gizarteko ekipamendura bideraturiko erreserbak.



SSU.02 BETIONDO SEKTOREKO PLAN PARTZIALA

Ordenantza Orokorrak

4. ORRIALDEA

Halaber, indarreko legeriak ezarritako aprobetxamendu urbanistikoen lagapena ere derrigorrezkoa izango da, jarduketaren baldintzen eta etapa planaren 5. agirian ezarritakoaren arabera.

3. KAPITULUA. ERAIKUNTZA BALDINTZAK

10. artikulua. Lursail eraikigarrien identifikazioa eta mugaketa

Lursail bakoitzaren identifikazio zenbakia eta mugak zona-banaketa xehatuaren 6. planoetan eta zehaztapen geometrikoaren 7. planoan agertzen dira.

11. artikulua. Lursail eraikigarrien eraikuntza araubide orokorra

Lursail eraikigarri bakoitza Ermuko Plan Orokorreko ordenantza hauen eraikuntza araubide orokorraren menpe dago:

- Familia bakarreko etxebizitza isolatuetarako egoitza lursailak:
 - ✓ 1-26. eta 34. lursailak.
 - OR-5 ordenantza. 3 maila. Isolaturiko familia bakarreko intentsiboa.
- Familia biko etxebizitza isolatuetarako egoitza lursailak:
 - ✓ 27-33. lursailak.
 - OR-5 ordenantza. 3. maila. Isolaturiko familia biko intentsiboa.
- Ilaran itsatsitako etxebizitzetarako egoitza lursailak:
 - ✓ 35-40. lursailak.
 - OR-5 ordenantza. 1. maila. Ilara intentsiboan itsatsitakoa.
- Dentsitate txikiko eraikuntza irekirako egoitza lursailak:
 - ✓ 41. eta 42. lursailak.
 - OR-3 ordenantza. 3. maila. Dentsitate txikiko eraikuntza irekia.
- Kiroleko ekipamendu komunitariorako lursaila:
 - ✓ 43. lursaila.
 - OR-3 ordenantza. 3. maila. Dentsitate txikiko eraikuntza irekia.
- Hezkuntzako ekipamendu komunitariorako lursaila:
 - ✓ 44. lursaila.
 - OR-3 ordenantza. 3. maila. Dentsitate txikiko eraikuntza irekia.

Eraikuntzaren araubide orokorra ordenantza horietara modu orokorrean eta subsidiarioan atxikita egotea gorabehera, lursail bakoitzean Plan Partzial honetan (Ordenantza Orokorrak eta Urbanizazio Fitxa xehatua) horietariko bakoitzerako berariaz adierazitako eraikuntza baldintzak beteko dira.



SSU.02 BETIONDO SEKTOREKO PLAN PARTZIALA

Ordenantza Orokorrak

5. ORRIALDEA

12. artikulua. **Eraikinaren lerrokadurak**

Eraikinaren lerrokadurak zona-banaketa xehatuaren 6. planoan eta zehaztapen geometrikoaren 7. planoan adierazitakoak izango dira. Sestra azpiko sotoak, kasu batzuetan, lerrokadurak gainditu ahal ditu, horretarako berariaz adierazitako mugaraino (35., 36., 37., 38., 39., 40., 41. y 42. lursailak).

13. artikulua. **Eraikuntza aprobetxamendua**

Fitxa Urbanistikoetan, lursail eraikigarri bakoitzerako, azalerarik handienak ezartzen dira eraikuntza okupaziorako, sestra gaineko eraikigarritasunerako eta sestra azpiko sotoko edo erdi sotoko eraikigarritasunerako.

Halaber, gehieneko etxebizitza kopuru onargarria ere ezartzen da.

Azalera eraikigarria zenbatzeko irizpidea, bestalde, Ermuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko arau urbanistikoetako 5.01.15 artikuluan ezarritakoa izango da.

14. artikulua. **Ezarkuntzako sestra, solairu kopurua eta eraikinaren altuera**

Plan Partzialean, lursail eraikigarri bakoitzerako, ezarkuntzako sestraren derrigorrezko kota altimetrikoa edo 0 kota zehazten da, eraikinaren beheko solairuko lurzoruarena, baita baimendutako solairu kopurua eta eraikinaren gehieneko altuera ere.

Lursail eraikigarri guztietan, sotoko edo erdi sotoko solairu bat eraiki daiteke, araudi berezian ezarritako baldintzetan. Gainera, erdi sotoaren zati bat lurretik irtenda egon daiteke, malda naturalak hori eskatzen duen lekuan, baldin eta horretarako soluzioak jatorrizko topografia errespetatzen badu.

Estalki azpiko lekuak aprobetxatu egin daitezke, solairu bakarrean, baldin eta araudian arauturiko estalki-profilak errespetatzen badira. Horien zenbaketa, eraikuntza aprobetxamenduaren ondoreetarako, Ermuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko arau urbanistikoetako 5.0.15 artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

Eraikinaren ezarkuntza egiteko, beheko solairuko forjatuaren goiko aldea, eraikinaren ezarkuntza egiteko, Fitxa Urbanistiko berezian beheko solairuko derrigorrezko sestratzat harturiko kotan egon behar da.

15. artikulua. **Estalkiko profilak**

Estalkiko planoak gehienez jota 1,50 m-ko hegalak izango ditu fatxada nagusietan, eta 1,20 m-koak alboko fatxadetan.

Estalkiaren gehieneko profila eraikinen hegalean kanpoaldeko lerroak mugatzen du, eta horrek gehienez 6 metroko altuera dauka fatxaden multzoan, 41. eta 42. lursailletako 9,50 metroak eta 43. zein 44. lursailletako 12 metroak izan ezik; halaber, estalkiko planoen gehieneko malda %35ekoa da.

Eraikinen estalkiko profilaren lerroak honako hauek soilik gainditu ahal izango dituzte: apaindurazko erremateak, igogailuen eskailera-kaxak eta eraikineko instalazioen elementuak (tximiniak, antenak ...), baldin eta horien kokalekua eta ezaugarriak behar bezala justifikaturik badaude.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

SSU.02 BETIONDO SEKTOREKO PLAN PARTZIALA

Ordenantza Orokorrak

6. ORRIALDEA

Estalkian ganbaradun irtenuneak egoteko, beharrezkoa izango da horiek estalkiaren gehieneko profilaren kanpoaldeko perimetroa ez gaintzea. Estalki azpiko solairuetan ezin da ganbaradun irtenunerik egon, eta argi naturala estalkiaren planoan kokatutako argizuloen bitartez lortuko da.

16. artikulua. Hegalak

Eraikinaren mugako lerrokaduretan hegalak egon daitezke, gehienez 1,00 m-ko irtenunekoak; horien garapenak ez ditu gaintutako eraikineko fatxada nagusietan duten luzeraren bi herenak, eta alboko fatxadetan garapenik handiena euren luzeraren heren batekoa izango da.

4. KAPITULUA EGOITZA LURSAILEN ERABILERA BALDINTZAK (1-40)

17. artikulua Egoitza lursailak erabiltzeko baldintzak

Eraikinetan onartzeko moduko erabilerak honako hauek dira:

1. Ohiko erabileraren baldintza

Ohiko erabilera egoitza da, honako honetan garatuta: familia bakarreko etxebizitza isolatuak (1-26. eta 34. lursailak), familia biko etxebizitza isolatuak (27-33. lursailak), ilaran itsatsitako etxebizitzak (35-40. lursailak) edo eraikuntza irekiko bloke txikietako etxebizitzak (41. eta 42. lursailak).

2. Erabileren bateragarritasun taula

R Egoitza	T Hirugarren sektorea	EE Hezkuntza	A Establezimenduak
RU Fam. bakar. egoitz.	TO Bulegoak eta banketxeak	ES Osasuna	AE Aparkaleku eremua
RC Taldeko egoitza	TC Komertzioak eta merkatuak	EC Kultura eta ikuskizunak	AG Aparkaleku zaindegia
P Produkzioa	TH Hotela eta egoitzak	ER Erljioa	AJ Garaje aparkalekua
PI Industria	TB Establ. publikoak	EA Herri Administrazioa	
PT Lantegia eta bilt.	E Ekip. komunitarioak	S Hiri zerbitzuak	
PA Nekaz. eta abel.	ED Kirola	U Hiri zerbitzu orokorrak	

• Familia bakarreko, biko eta itsatsitako lursailak (1-40. lursailak)

	U	C	I	T	A	O	C	H	B	D	E	S	C	R	A	U	E	G	J	
ESTALKI AZPIA																				3. KOKALEKUA
LEHENA							4					4	4	4						3. KOKALEKUA
BEHEKOA							4	10				4	4	4						2. KOKALEKUA
SOTOA ERDI SOTOA	8																8			1. KOKALEKUA
	R	P	T	E	S	A														
		BAIMENDUA	4	BAIMENDUA BALDINTZEKIN			DEBEKATUA													

- Ohiko erabileraren bateragarritasun baldintzak



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

SSU.02 BETIONDO SEKTOREKO PLAN PARTZIALA

Ordenantza Orokorrak

7. ORRIALDEA

4. baldintza. Erabilera hori beheko edo lehenengo solairuan baimentzen da, baldin eta jarduera titularraren egoitza iraunkorarekin lotuta badago eta etxebizitzaren azalera erabilgarriaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago edo 75 m²u okupatzen ez baditu, ondoriozko etxebizitzak etxebizitzaren gutxieneko programa betetzekotan.

8. baldintza. Sotoko solairuan, garaje erabilera ez ezik, etxebizitzarekiko egoitza osagarriak eta eraikineko zerbitzu-eremuak baimentzen dira, baina ez modu jarraituan bizitzeko zonak.

10. baldintza. Erabilera hau beheko solairuan baimentzen da, 60 m²c-ko azalera-mugarekin.

• Eraikuntza irekiko lursailak (41. eta 42. lursailak)

	U	C	I	T	A	O	C	H	B	D	E	S	C	R	A	U	E	G	J	
BIGARRENA						4														3. KOKALEKUA
LEHENA						4														3. KOKALEKUA
BEHEKOA		1											2			8				2. KOKALEKUA
SOTOA ERDI SOTOA													3			8				1. KOKALEKUA
	R	P					T							E			S		A	

BAIMENDUA
 4 BAIMENDUA BALDINTZEKIN
 DEBEKATUA

- Ohiko erabilerarekiko bateragarritasun baldintzak

1. baldintza. Eskailera kaxak eta etxebizitzaren zerbitzurako elementu komunak soilik.
2. baldintza. Etxebizitzaren lokal komunitarioak bakarrik (txokoa, sozietatea, jolasteko gela ...).
3. baldintza. Erabilera horiek sotoan edo erdi sotoan baimenduta daude, baldin eta beheko solairuko erabilerarekin lotuta badaude.
4. baldintza. Erabilera hau solairuetan baimenduta dago, baldin eta jarduera titularraren bizileku iraunkorarekin lotuta badago eta etxebizitzaren azalera erabilgarriaren ehuneko berrogeitik gora okupatzen ez badu, ondoriozko etxebizitzak etxebizitzaren gutxieneko programa betetzekotan.
8. baldintza. Eraikinari zerbitzua emateko azpiegitura txikiaren erabilera soilik baimentzen da, kasuan kasuko arau sektorialak betez gero.

3. Eraikigarria ez den lursailaren erabilera eta okupazio baldintzak

Lursaileko lurzoru eraikigarrian honako erabilera hauek baimenduko dira: lorategia, baratzea, sarbideak, gainazaleko aparkalekua eta egoteko nahiz jolasteko zonak, eta horiek guztiak



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

SSU.02 BETIONDO SEKTOREKO PLAN PARTZIALA

Ordenantza Orokorrak

8. ORRIALDEA

lursailean finkatutako eraikineko etxebizitzaren menpe egongo dira. Halaber, eraikin lagungarri batzuk ere onartuko dira, 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. KAPITULUA

URBANIZAZIOKO ETA APARKALEKUKO BALDINTZAK

18. artikulua.

Sektorearen urbanizazio orokorreko baldintzak

Urbanizazio Proiektuak urbanizazioko gutxieneko baldintza hauek beteko ditu:

• Bide-sarea.

- Sarbideak, lotuneak eta sektoreko bide-sarearekiko lotura-sisteman eragina duten gainerako elementu guztiak Ermuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ezarritako bide-egitura orokorrera egokituko dira.
- Bateriako aparkaleku plaza bakoitzaren azalerarik txikiena 2,20 m x 4,50 m-koa izango da, eta lerroko aparkalekuena, berriz, 2,00 m x 5,00 m-koa. Elbarrien ibilgailuentzako bateriako aparkalekuen gutxieneko azalera 3,60 m x 5,00 m-koa izango da.
- Gainazaleko urbanizazioan erabili beharreko materiala (bidezoruak, zintarriak, zoladurak, akaberak, hiriko altzariak, etab.) Udalak baimendu beharko du berariaz.
- Honako hau bete beharko da: Indarreko Errepide Instrukzioa; behar bezala justifikaturiko salbuespenen kasuan izan ezik, Eusko Jaurlaritzak Irisgarritasuna Sustatzeko 1997ko abenduaren 4an emandako legea, eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri inguruen, eremu publikoen, eraikinen eta informazio nahiz komunikazio sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak zehaztu dituen.

• Edateko uraren hornidura.

- Gutxienez 300 l/biz./eguneko zuzkidura duen sarea proiektatuko da.
- Sarearen diametrorik txikiena 100 mm-koa izango da. Sarea 16 atm.ko (PN-16) lan-presioa jasateko gauza izango da, hodiak, balbulak eta abar ez apurtzeko, presioa murrizteko balbulek hutsik eginez gero. Presioa murrizteko balbulak jartzean, kontuan hartuko da sareak ez duela 7,5 atm.tik gorako presio estatikorik eduki behar. Halaber, sarearen eskema burdinazko sare bati dagokiona izateko ahalegina egingo da, presioen arteko oreka handiagoa eta hornidura-segurtasuna handiagoa lortzeko matxuraren bat egonez gero. Korapilo guztietan, isolamenduko balbulak egongo dira, bertatik irten edo bertara iristen diren adar guztietan.
- Ureztatze-ahokak edo hidranteak jarriko dira gutxienez 100 m bakoitzeko. Suteen aurkako ahokak NBE-CPI 82 Oinarrizko Arauan ezarritakoaren arabera jarri eta dimentsionatuko dira, NBE-CPI 91 Lege berriak indargabetu gabeko ataletan.
- Eraikinetarako hartuneak isolamenduko giltzarekin (zona publikoan jarriko den giltza), eta berorren elementu guztien ezaugarrietan kontuan hartuko da 16 atm.ko (PN-16) lan-presioa jasan beharko dutela. Eraikigarria ez den lurzoruko kutxeta erregistragarri baten bitartez egingo dira.
- Sarea eta berorren elementuak (hodiak, balbulak, suteen aurkako ahokak, ureztatze ahokak, kutxeten estalkiak, etab.) eraikitzean erabili beharreko materiala eta horren ezaugarriak udaleko zerbitzu teknikoek baimendu beharko dute berariaz.

• Saneamendua eta isurketa.

- Kolektorearen diametrorik txikiena 300 mm-koa izango da.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

SSU.02 BETIONDO SEKTOREKO PLAN PARTZIALA

Ordenantza Orokorrak

9. ORRIALDEA

- Kolektore baterako hartune baten diametrorik txikiena 200 mm-koa izango da; hartuneak eraikineko euri- edo hondakin-ura bildu eta 10 m-tik beherako distantzian saneamendu-sareraino eramaten duen adarrak osatzen ditu. Distantzia hori 10 m-tik gorakoa bada, diametrorik txikiena 300 mm-koa izango da. Hartune bat 500 mm-ko edo hortik beherako diametroa duen kolektore batean sartzeko, ezinbestekoa izango da erregistroko putzua. Hartune bat 500 mm-tik gorako diametroa duen kolektore batean sartzeko, kolektorearen hodia zulatu egin daiteke zulagailu bereziekin, eta gero, hodiaren eta hartunearen arteko loturan, goma malgua jarriko da, honako hau segurtatzeko: hartuneak ezin duela zeharkatu kolektore nagusiko horma, sistema hermetikoa dela eta kolektorearen nahiz hartunearen arteko lotura malgua sortzen dela, euskarri diferentzialak ahalbidetzeko, hodiren bat apurtu barik.
 - Saneamendu-sarea hermetikoa izango da, indarreko araudian ezarritakoaren arabera. Erregistroko putzuek sarearen hermetikotasuna bermatuko dute; aurretiaz fabrikaturiko putzuak erabilteza proposatzen da eta horiek zirindolen arteko juntura hermetikoa izango dute; gainera, putzuaren eta hodiaren arteko lotura egon behar da, bi egituren arteko mugimenduak ahalbidetzeko, hermetikotasuna galdu barik. Putzuetako elementu laguntzaileak (esate baterako, galdaketaren estalkiak nahiz markoak, etab.) udaleko zerbitzu teknikoaren aurretiazko onespena beharko dute.
 - 400 mm-ko edo hortik beherako diametroa duten hodiak PVCkoak izan daitezke, MOPT deritzonaren Populazioen Saneamenduko Hodiariaren Plegu Orokorrean ezarritakoaren arabera. 500 mm-tik gorako diametroa duten hodiak hormigoi armatuzkoak izan daitezke, Plegu horretan eta ASTM-C-76 arauan ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, udaleko zerbitzu teknikoaren berariazko baimena behar da.
 - Kolektoreen diseinu hidraulikoan, kontuan hartuko da aurreikusitako hondakin-ura eta euri-ura garraiatzeko gaitasuna. Euri-uraren kantitatea 10 urteko aldi baterako kalkulatu da, itzultze-aldi horretarako aurreikusitako intentsitateak edo hietograma eta kasuan kasuko pilaketa-aldia kontuan hartuta. Bere burua garbitzeko gaitasuna egiaztatuko da, eguraldi lehorreko oraingo batez besteko emaria aintzat hartuta. Emari txikietan eta milako 5etik beherako maldetan ere, hodiariak eraso sulfhidrikoaren aurka duen eraginkortasuna ere egiaztatuko da.
 - Eramateetan, erregistroko kutxetak kokatuko dira sekzio-aldaketetan, maldetan, lerrokaduretan eta hartuneetan, gehienez jota 35 m bakoitzeko. Halaber, hustubideak ere jarriko dira, gehienez 35 m bakoitzeko. Eraikin bakoitzak sare orokorrera duen saneamenduaren hartunerako kutxetak lurzoru ez eraikigarrian kokatuko dira. Hartuneko bi kutxeta jarriko dira beti, bata ur beltzetarako eta bestea euri-uretarako.
- **Argiztapen publikoa.**
 - Bideen argiztapen maila 20-25 lux-ekoa izango da batez beste, 0,35eko uniformetasun-faktorearekin.
 - Instalazioan erabili beharreko materiala udaleko zerbitzu teknikoek baimenduko dute berariaz.
 - Diseinuaren, kalkuluaren eta eraikuntzaren baldintzek 1964ko martxoaren 31ko 9.1.10 Aginduko xedapenak beteko dituzte: MOPTen "Errepideen argiztapena" eta "MOPTen Hiri Argiztapenerako Arauak eta Instrukzioak" deritzon buruzko xedapenak.
 - **Beste azpiegitura batzuk.**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

SSU.02 BETIONDO SEKTOREKO PLAN PARTZIALA

Ordenantza Orokorrak

10. ORRIALDEA

- Energia elektrikoaren hornidurarako sareak, altan (hartunea izan ezik) eta baxan, telefonia nahiz telekomunikazio sareak eta gas sareak lurpekoak izango dira nahitaez.

- Azpiegitura horien diseinua, kalkulua eta eraikuntza egiteko, kontuan hartuko dira konpainia hornitzaileen arauak, indarreko Araudi Teknikoen arauak (tentsio altukoa eta baxukoa, transformazio zentroak, gas likidotuak, etab.) eta Araudi Teknologikoen arauak (IEB-Tentsio Baxua, IER- Kanpoko Sarea, IET-Transformadoreak, IGL-Gas Likidotuak, etab.).

- Adierazitako gutxienerako baldintzatariko batzuk ez dira bete beharrekoak izango, Udalak hori erabakiz gero, bai ofizioz edo bai aurreiazko eskabide bati erantzunez, baldin eta justifikaturiko arrazoiak aintzat hartuta beste modu batera ebaztea komenigarria bada.

19. artikulua. **Lursail eraikigarrien urbanizazio baldintzak**

Lursailaren kontura egingo dira berorren osagarriak diren barruko urbanizazioko obra guztiak, honako honetan oinarritzen direnak: luraren egokitzapena nahiz lur-mugimenduak, hormak, ibilgailuen nahiz oinezkoen sarbidea, zoladura, eremu berdeetako lorategiak nahiz zuhaitzak, hartuneak (zerbitzuko sare orokorretaraino) eta lursailaren kanpoaldeko itxiera.

Lursail guztien perimetro osoan hesiak egongo dira. Lursail mugakideen arteko itxierak edo halakorik egonez gero, eustormak bi lursailak ordainduko dituzte modu proportzionalen. Lursailaren barruan jartzen diren obrak ez dira urbanizazio orokorreko obratzat hartuko.

Lursail bakoitzak, Urbanizazio Fitxan beste baldintza batzuk ezarri ezean, ibilgailuentzako 3,50 m-ko gehieneko zabalera duen sarbide bakarra edukiko du, eta etxebizitza bakoitzeko oinezkoen sarbide bat ere bai, eta horren gehieneko zabalera 1,5 m-koa izango da. Sotoetan sartzeko arrapalak lursail pribatuen barruan egongo dira oso-osorik eta nahitaez.

20. artikulua **Finken banaketak eta itxierak**

Finkek euren artean dituzten banaketak eta itxierak (bide edo eremu publikoekiko muga daudenak) ez dute 2,20 m-ko altuerarik gaindituko. Altuera hori finka partikularrak banatzeko itxiera euskarritzen duen lurraldeko sestratik neurtuko da, edo bide publikoaren sestratik, itxiera horrekiko mugakidea denean.

Itxierak edo banaketak sare-mailekin, burdinazko sareekin edo hesiekin egin daitezke guztiz edo neurri batean. Lantegiko horma erabiliz gero, horrek gehienez 1,50 m-ko altuera izango du.

Lantegiko itxieradun hormak, ahal dela, harlangaitzezkoak izango dira eta harrizko estaldura izango dute. Udalak beste eraikuntza soluzio batzuk onar ditzake, baldin eta euren diseinua kontuan hartuta ondo integratzen badira inguruaren ezaugarri arkitektonikoetan. Nolanahi ere, debekaturik daude hormigoia agerian duten hormak edo hormigo-blokeen akabera agerian dutenak.

21. artikulua **Egoitzako lursail pribatuetako lurzoru askea**

Lursailen lurzoru pribatua, eraikinak okupatzen ez duena, lorategien sarbiderako nahiz behin-behineko aparkalekurako eta lorategirako, baratzerako edo jolas-eremurako erabil daiteke; gainera, eraikuntza osagarri batzuk eduki ahal izango ditu negutegirako, familiako tailerretarako edo antzeko gauzen baterako, baldin eta multzo osoak 15 m²c-ko azalera eraikia eta 3 m-ko altuera gainditzen ez badu, familia bakarreko lursailetan, eta 25 m²c-ko azalera eraikia eta 3 m-ko gehieneko altuera, gainerako egoitza-lursail guztietan.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

SSU.02 BETIONDO SEKTOREKO PLAN PARTZIALA

Ordenantza Orokorrak

11. ORRIALDEA

Eremu horien azaleraren tratamendu nagusia lorategikoa edo zona berdekoa izango da; horrenbestez, ezin daiteke zoladurarik egon eraikinak okupatu gabeko lursailaren azalera askearen erdian baino zati handiagoan.

Eraikinak betearazteko proiektuek eremu aske pribatu guztien lorezaintza eta urbanizazio tratamendua ikertuko ditu. Eremu horietan egingo diren zuhaitz-landaketek, gutxienez, eraikinak okupatu gabeko lursaileko 100 m² bakoitzeko zuhaitz 1eko estandarra beteko dute. Landaketak, espeziei eta kokalekuari dagokienez inguruan nahiz paisaian sor daitezkeen eraginak eta lursail mugakideen kokalekua kontuan hartuta proiektatuko dira. Nolanahi ere, zuhaitzak gutxienez metro batera kokatuko dira, lursail pribatu mugakideetatik.

Lurreko sestrak erregulatzeko egin behar diren lurrak edukitzeko hormek, materialen diseinuari eta tratamenduari dagokionez, finkak banatzeko zein ixteko hormen baldintza berberak bete beharko dituzte.

22. artikulua. **Aparkalekua**

Lursail eraikigarri bakoitzean, gutxienez honako estandar hau eskaintzen duen aparkalekuko barne zuzkidura proiektatuko da:

- Familia bakarreko (isolatuak), familia biko (isolatuak) edo ilaran itsatsitako egoitza-lursailak (1-40. lursailak): 2 plaza etxebizitza bakoitzeko.
- Dentsitate txikiko eraikuntza irekiko egoitza-lursailak (41. eta 42. lursailak): 1,5 plaza etxebizitza bakoitzeko.
- Kiroleko ekipamendu komunitariorako lursaila (43. lursaila) 20 plaza.
- Hezkuntzako ekipamendu komunitariorako lursaila (44. lursaila): 20 plaza.

Aparkalekuko plazak gainazalean edo sotoko solairuan egon daitezke.

23. artikulua. **Zerbitzuko azpiegituren igarotze-zortasunak**

Lursail pribatuek Urbanizazio Proiektuan ezarritako igarotze-zortasunak edukiko dituzte, azpiegituren lurpeko eramateei dagokienez.

Sektoreko zerbitzu orokorren azpiegitura-sareak diseinatzeko baldintzen eraginez jabari pribatuko lursailak zeharkatu behar direnean, horien elementuak beharrezko baldintzekin eta trazatuekin instalatuko dira, plan partzial honetan onartutako eskubide urbanistikoaren gauzapea ez ekiditeko.

Era berean, eta baldintza berberekin, zerbitzuen sare orokorrekiko kokalekuaren ondorioz sare horietarako lotura egiteko beste jabe baten lurrak zeharkatu behar dituzten jabeek lur horietan beharrezko eramateak instalatu ahal izango dituzte, sortutako kalteen eta eragozpenen zenbatekoa ordainduz gero.

6. KAPITULUA. **DISEINU ARKITEKTONIKOAREN BALDINTZAK**

24. artikulua. **Eraikinaren baldintza estetikoak**

Askeak. Eraikuntzan erabilitako materialek eta soluzio arkitektonikoen eraikinaren kalitatea eta iraunkortasuna bermatu beharko dute.

Eraikineko erdi sotoetako hormen kanpoko paramentuek, lurraldetik irteten diren zatian, fatxadaren tratamendu orokorrekiko tratamendu berezia izango dute. Komenigarriak dira manposteriarako



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

SSU.02 BETIONDO SEKTOREKO PLAN PARTZIALA

Ordenantza Orokorrak

12. ORRIALDEA

akaberak, harrizko estalkiak edo antzekoak, erdi sotoak eraikinaren beste solairutzat ez agertzeko. Erdi sotoetako paramentuetan, dimentsio txikiko argiztapen eta aireztapen bitarteak soilik baimenduko dira; horiek ez dute zokalo izaera eta eraikinak lurraldearekin bat egiteko hormaren oinarritzko eginkizuna indarrrik gabe utziko. Ibilgailuen sarbideko lekuan izan ezik, erdi sotoko solairuak 1,50 metrotik beherako altuera izango du eraikinaren perimetro osoan, lurraldeari dagokionez; gainera, luzetarako garapena gehienez %60ra iritsiko da, eraikinaren kanpoko perimetroari dagokionez.

25. artikulua. Errotulazioa eta publizitatea

Sektorearen eremuan debekatuta dago merkataritzako errotuluak eta iragarkiak jartzea.

Manu horren salbuespentzat, hauxe baimentzen da:

- Finka partikularrak eta eremu publikoak seinaleztatzeko, izendatzeko eta zenbakitzeko errotuluak.

Horiek guztiak estandarizatuta geldituko dira (materiala, neurria, ezaugarriak eta kokalekua), eta gainera, udal lizentzia beharko dute.

- Ekipamendu sozialeko edota komertzialeko lokalen errotuluak.

Fatxadaren planoan soilik kokatu eta horren azalerarekiko paralelotara garatuko dira, gehienez 10 cm-ko irtenunearekin.

26. artikulua. Esekitokiak

Fatxadan kokatzen badira, arropa kanpoaldetik ikustea ekiditen duten elementuekin estalita egongo dira, eta horien diseinua, berriz, eraikineko fatxadaren multzoan integraturik egongo da.